

## **FUNTSEZKO ELKARTEAK**



Kontziente gara gure enpresari jariaortasuna bermatzeko elkarteak behar ditugula, ez garelako gai ez fisikoki ez ekonomikoki jarduera guztiak bakarrik egiteko. Ondorioz, funtsezko elkarte batzuk ezarriko ditugu; hala nola garraioa, lehengai hornitzaileak, marketingaz arduratuko diren enpresak, kolaborazioak eta aliantzak.

Hasteko, garraioa. Kasu honetan DHL Express aukeratu dugu gure garraio enpresa gisa. Arrazoi nagusiak hauek izango lirateke: Bilbon (Urkixo Zumarkalea, 21, Bajo Lonja 2 Izq, 48008 Bilbao, Biscay kalean) daukaten eraikina eta haien produktuarekiko tratua ona + entregatzeko epe lehiakorak izango litzateke. Ekonomikoki aukera merkeagoak egon daitezkeen arren, ezberdintasuna ez da hain handia eta produktuaren egoerari lehentasuna eman nahi diogu. Garraio zerbitzu hau gure produktuak kontsumitzaileen etxeetara iristeko erabiliko genuke.

Jarraitzeko, hornitzaileak bereiziko ditugu. Bi hornitzaile nagusi behar ditugu.

1. Pistatxoak eta fruitu lehorrak: Ordu bete inguru hornitzaileen ezaugarriak aztertzen pasatu eta gero, Montial Exports (<https://www.montialexports.com/>) aukeratu dugu. Granadako enpresa bat da non mota guztietako fruitu lehorrak ekoizten dituenak. Konfidantza erakusten du eta kalitate altuko produktuak bermatzen ditu. Horregatik aukeratu dugu.
2. Kotoia eta arropak sortzeko lehengaiak: Gure arropa sortzeko eta ideiak errealitate bihurtzeko, materialak behar ditugu. Uste dugu kalitatezko lehengaiak izatea puntu garrantzitsua dela produktu on bat lortzeko. Eta hau Ravial (<https://www.ravial.com/>) enpresaren esku utziko dugu.

Prezio lehiakorrak, kalitate handiko kotoia eta ekoizpen jasangarria dira haiek aukeratzera bultzatu gaituzten ezaugarriak, izan ere, ezaugarri horiekin bat egiten dugu.

Hurrengo atalean, zein bazkide-elkarterekin lan egingo dugun adieraziko dugu. Kasu honetan, kolaborazioetan oinarrituko gara gure marka zabaltzeko. Gure helburu nagusia “influencerrekin” kolaboratzea izango litzateke, haien jarraitzaileek gure arropa ikus dezaten.

Adibidez: @ByCalitos, @Rodris, @Byrie, @Mati.Gonzalez, @Iker11Alvarez... arroparen munduan lan egiten dutelako eta eskura handia daukatelako gure marka patrozinatzeko.

Bestalde, beste arropa enpresekin kontaktuan egoten saiatuko gara, negozio-idea optimizatzeko eta produktu jakin batzuk jaurtitzeko, adibidez: “Nike x Lows Jordan 1 Dark Mocha”. Hau Nike enpresak ekoizten dituen “Air Jordan 1” zapaten bertsio bat izango litzateke, non gure ezaugarri batzuk agertu ahal diren. Eta horrela hainbat markekin. Kolaborazioen bidez janskeraren munduan ezagunak egingo gara.

#### LANGILEEN ZEREGINA:

Kontabilitatea: Jon Ander. Excel aplikazioan software bat dago non gastuak eta irabaziak aipatuz balantzeak egiten diren.

Diseinuak: Peio; bere ideiak paperera pasatzea eta digitalizazioarako prestatzea izango litzateke.

Jostea eta arropa egitea: Peio eta Jon Ander